



ZORROTZ MORROTZ

40. EDIZIOA 2016ko UZTAILA

**IVÁN SANCHALETA
AKETZA UNZUETA**
TAEKWONDOKO ESPAINIAKO
TXAPELDUNA ETA TXAPELDUNORDEA
TXINBOTARRAK KONPARTSA. 10. URTEURRENA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

**5 FORMULA:
+ NOMINA
+ AUTO ASEGURUA**

**AUTORAKO MAILEGUA
% 5eko ITNrekin
(%5,77ko UTB)***

(NOMINA EDO PENTSIDA HELBIDERATUTA DAUKATEN BEZEROGENTZAKO
ESKAINITZA BEREZIA, AUTORAKO MAILEGUA KUTXABANK AUTO
ASEGURUA REKIN BATERA ESKATZEN BADUTE).



**KUTXABANK
PRODUKTUEN BESTE
KOMBINAZIO BATZUEKIN
ERE ESKA DEZAKEZU
5 FORMULA, INFORMATU
ZURE BULEGOAN EDO
WWW.KUTXABANK.ES
WEBGUNEAN.**

*Gutxienez 10.000 euroko zenbatekoa eta 60 hilabete epea dituen mailegu baterako kalkulaturik. Hobaritutako ITN: % 5,00 (UTB: % 5,77). Irakurle-komisioa: % 1,50. Zor den zenbatekoa, guztira: 11.472,74 €. Azken kuota: 188,85 €. Gainerako hileko kuotak: 188,71 €. Eskaintza hau baliatzeko, Auto Kutxabank aseguruaren kontratatuta eduki behar da, eta honako baldintza hauetakoaren bat ere bete behar da: nomina edo pentsida helbideratuta edukitzea; Kutxabank txartelarekin saltokietan urtean 1.200 euro edo gehiago kontsumitzea; Kutxabank Kredit aseguru babestua kontratatzea eta urteko mantentzea. Auto Kutxabank aseguruaren Liberty Seguros (Compañía de Seguros y Reaseguros, SA) etxearen produktua da. Kutxabank Kredit Aseguru Babestua Kutxabank Vida y Pensiones SA-aren aseguru da. Auto aseguru eta Kutxabank Kredit Aseguru Babestua Kutxabank SA-aren bitartekaritzarekin bidez kontratatuko dira. Kutxabank Vida y Pensiones sozietatearen banka-aseguruetarako operadore bakarra Kutxabank da, eta haren baimena du Kutxabank Aseguradora sozietatearekin eragileak egiteko. Artetikari Administrazio Erregistro berezian dago izena emanda, C0654A9563077 zenbakipean. Aurretiaz ordaintzeagatik konpentsazioa, baldin eta amortizazioaren data eta maileguaren epemugaren artean urtebeteko baino gehiagoko tartea bada; Ordaindutako maileguaren zenbatekoaren % 1. Urtebeteko edo txikiagoa bada: % 0,5. Ez da inolaz izango zenbateko horrek epemugara arte sortuko lituzkeen interesak baino handiagoa. Iraungitako zordun-posizioen erreklamazioagatik komisioa: 30 €. Erakunde ikuskatzailea: Espainiako Bankua. Eskaintza 2016/05/31 arte egongo da indarrean, bulegoetan egiten diren kontratazioetarako. Zenbatekoak eta epeak bestelakoak izanez gero, galdetu baldintzak, bulegoan. Erakunde mailegu-emaileak azterketa egin eta onartu egin beharko du lehendabizi. Eskaintza hau ezin da beste eskaintza batzuekin eratu. Erakunde mailegu-emaileak: Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta: 5226 liburukia, 0. liburua, BI-58729 orria, 1. inskripzioa.



10 URTE Zorrotzako merkataritza sustatzen

...Imajinatzen duzu auzoa
merkataritzarik gabe?

**ESKAINITZARIK ONENA
ZORROTZATIK
IRTEN BARIK
Berton
kontsumitu!**



Zorrotza bizirik dago. Argi eta garbi

Gure auzoa bizirik dagoela ukaezina dela argi eta garbi esan daiteke. Azken urte hauetan Herri Mugimenduak (bere osotasunean) egindako lana honen adibide argiena da. Gure lana eta esfortzuari esker, tinko eta adoretzu, auzoa aldatzea lortzen ari gara Zorrotzarron beharizenatara moldatuz. Asko dira lantzen ari diren ekimenak, eta asko ere lortutako hobekuntzak, baina azpimarratu behar da, urteetan aldarrikatutako frontoiaren estaltzea onartua izan dela.

Ekainean zehar, beste behin ere, Zorrotza Gozatu eta Bizi programa ospatu dugu. Honen ekimen nagusia Zorrotza eguna da, gure auzoa eta auzokideon aldeko hautua azpimarratzeko balio duen eguna, hain zuzen ere. Eta horrela jarraituko dugu, ilusioz eta zuen laguntzarekin auzo hobe baten alde lanean.

Ezin bukatu orain dela gutxi zendutako Manolo Vélez oroitu gabe. 60ko hamarkadan, Auzo Elkartearen bultzatzaile eta sortzaileetako bat. Goian bego!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan
jasotzeko, bidali mezu
elektroniko bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora,
gaiaren laukian
“harpidetza” jarritz



ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
40. zenbakia. 2016ko uztaila

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:
Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:
Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:
Iñigo

Laguntzaileak:
Karlos Rodríguez
Manu Cobo
Asier Urkiza
Santurtziko Irakurzaile Kluba

Inprimaketa:
Arin Graf



zurea da hitza
euskara
no te lo pierdas

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estria, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

AUTO ESKOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua

Auzo Elkartearen urteko batzarra

Auzo Elkartek urtero deitzen duen Auzokideen Batzarra egin zuen ekainaren 1ean, Auzo Etxean. Gai interesgarri batzuei buruzko informazio zehatza jaso zuten bertaratuek eta eztabaida bizia piztu zen..



Karlos Rodríguez

Aipamen berezia merezi zuten azken urtean eraiki diren ekipamendu berriek: umeentzako jolas gune estalia Azoka Plazan, A8 gaineko pasabidera doan igogailua, lkastalde kaleko funikularra eta Zazpilandako lorategi berria, besteak beste. Halaber, EHUrekiko lotura zuzena Bizkaibus bitartez nabarmendu zen. Aldi berean, hurrengo hilabeteetan zerbitzuan egongo diren ekipamendu garrantzitsuak aipatu ziren: egoitza berria mendekotasuna duten pertsonentzat eta frontoiaren estaldura, beheko lokalen konpontzea ekarriko duena.

Berri pozgarriak diren arren, gure auzoan badaude oraindik ere konpondu beharreko arazo handiak:

- Auzo Etxe eta Kultur Etxe duinen falta.
- Irisgarritasuneko soluzio egokiak.
- FEVEko trenbideko lurperatzea, geltokiak auzoan jarraituta.
- Tarifakazio sistema uniforme bat ezartzea Bilboko garraio publikoan. Horrela, garraio-bide bat baino gehiago erabiltzen bada eremu berean, tarifa bakarra ordainduko litzateke.
- Noizbehinka gertatzen diren elkarbizitza eta giza arazoak konponbidean jartzea.

Beste alde batetik, Auzo Elkartek iragarri zuen estatutu berriak idazten ari dela egungo legediarekin bat egiteko. Horrek ekarriko du, besteak beste, Zuzendaritzako pertsonen aldaketa eta izen berria jartzea Elkarteari. Auke-ratutako izena "Aldarrika" izango da. Azkenik, Auzo Elkarteko ordezkariak dei berezia egin zieten bildutako lagunei parte aktiboa har dezaten auzoko mugimenduan, horrela denontzako auzo hobea lortuko baitugu.

Laguntasunak bere hamargarren urteurrena ospatu zuen hainbat ekintza antolatuta



Zorrotz Morrotz

Hamar urte bete ditu Laguntasuna Merkataritza eta Ostalaritza Elkartea. Ospatzeko, pasa den ekainaren 17an hainbat ekintza antolatu zituen auzoan: arratsaldeko lehenengo ordu-tik, umeentzako tailerrak egon ziren parkean eta tren turistiko bat ibili zen auzotik zehar. Ibai Arteren txikiak dantzen agerraldiaren ostean, "Zumba" erakustaldia burutu zen Cesar gimnasilekuaren eskutik. Bukatzeko, Marrazki Lehiaketa eta "Nire auzoko merkataritza" 2. Argazki Lehiaketaren sari banaketa egin zen. Zorionak eta urte askotarako!

XX. Ipuin lehiaketaren sariak banatu dira

San Juan bezperan, Euskal Txokoak babestutako Xilipurdi Antzerki Taldearen emanaldiaren ostean jaso zuten euren saria idazle gazteek

Zorrotz Morrotz

Urtero bezala, aurten ere Zorrotzako Euskal Txokoak ipuin lehiaketa antolatu du, aurten-goia XX. edizioa izanik. 50 ipuin baino gehiago jaso dira. Hurrengo edizioan ere zuen ipuinak jasotzea espero dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu pare hartu duzuen guztioi.

Zorrotza Gozatu eta Bizi programaren barnean, ekainaren 23an Zorrotzako Euskal Txokoak babestutako Xilipurdi Antzerki taldearen "Ezetx kontal!" emanaldiaren ostean, Xilipurdi taldearen eta Euskal Txokoko kideen eskutik jaso zituzten euren sariak idazle gazteek. Irailan, lehiaketan aurkeztutako lagun guztiek haien parte hartzea eskertzen duen oparitxo bat jasoko dute. Zorionak irabazleei!

12 urtetik behera:

- 1. saria: Joyce Malanda.
(Sopuertaabenturarako sarrerak).
- 2. saria: Rubén Lucas Couce.
("Matraka" mahai-jolasa).

Garagardo Dastaketa euskaltegian

Zorrotz Morrotz

Joan den maiatzaren 13an garagardo dastaketa antolatu zuen Euskal Txokoak euskaltegian, iluntzeko 19etan. Bertaratu ginen dozena bat lagunok bi orduko azalpenez eta hainbat garagardoz gozatzeko aukera izan genuen, giro urko eta gozoan. Izan ere, mundu zabala da oso garagardoarena, eta horretan oso jantzia dugu Mario, Alde Zaharreko La Catedraletik etorri zitzaigun aditua: historia, ekoizpen teknikak, egungo zabalkundea Euskal Herrian (auzotar batzuen Boga barne), dastatzean zeri erreparatu... ezin jaso ahala datuz bete zuen gure gogo! Oiarzungo Mala Gissona gara-



DBH eta batxirlegoko ikasleak:

- 1. saria: Naia Zubero Pérez.
(100 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: Iker Fernández Berruenco.
("Auskalo" mahai-jolasa).
- Aipamena: Aitziber Aguado González.
("Auskalo" mahai-jolasa).



gardoak izan genituen aztergai, zein baino zein gozo eta harrigarriagoa.

Horren gustura geratu ginenez, hurrengo batean ere antolatzeko aukera geratu da airean. Beraz, oraingoan etorri ez zinen hori, adil.

Burtzeñako zubia estaltzeko konpromisoa agertu du Bilboko Udalbatzarrak

EH Bilduren eskariz, zubia estaltzeko proposamena aho batez onartu zen maiatzeko Bilboko Udalbatzarrean. Barakaldoko Udalbatzarrean eta Batzar Nagusietan ere eskaria egingo zuela iragarri zuen koalizioak zubian bertan egindako prentsaurreko batean

Zorrotz Morrotz

Zorrotza eta Barakaldoko Burtzeña auzoak batzen dituen N-634 errepidean Kadagua ibaiaren gainetik doan zubia oso erabilia da bi norabideetan. Zorrotzako biztanleek egunero zeharkatzen dute, besteak beste, seme-alabak Burtzeñako ikasguneetara laguntzeko, metroa Gurutzetan hartzeko...

Azken urteotan zubiak zenbait hobekuntza jasan izan ditu: espaloien zabaltzea eta argiztapena hain zuzen ere. Hauek ordea, ez dute erabiltzaileek pairatzen duten arazorik handie-

na konpontzen Bruno Zubizarreta Bilboko EH Bildu taldearen zinegotziaren iritziz: "Inguruan sortzen diren haize bolada bortitzek eta euriak erabilera galarazten dute" adierazi zuen Zubizarretak.

Proposamen hau EH Bilduk egin dituen beste batzuen artean kokatu behar dela argitu zuten prentsaurrekoan. Adibidez, nagusientzako egoitzaren irekiera dela eta, A8an pantailak jartzea ere eskatu zuten, egoitzaren erabiltzaileek jasandako zarata murrizteko. Eskaera onartua izan da, eta lanak bukatzeaz daude.

Alazne López Etxebarria omendu dute lorategi bati bere izena jarrita



Zorrotz Morrotz

Auzo Elkarteak egindako eskaerari erantzunez Bilboko Udalak Alazne Lopez Etxebarria dantzari gaztea omendu du Zorrotzan lorategi bati haren izena jarritz. Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, udal gobernu eta hainbat udal taldetako kideekin batera, maiatzaren 11tik 'Alazne Lopez Etxebarria lorategia' izena duen esparruari bisita egin zion, omenaldian parte hartzeko asmoz. Ezustean eta 21 urte baino ez zituela Dortmunden Alazne hil zenetik lehenengo urtea bete eta egun gutxira egin zen ekitaldi hunkigarri honetan, senideak, adiskideak eta ikaskideak egon ziren, hainbat auzokideekin batera.

Era berean, Auzo Elkarteak antolatuta, Alazne protagonista zuen bideo eta argazki erakusketa ere egon zen Auzo etxean aste horretan.

Landa

Plaza honek Mikel Deuna izena deko baie zorrotzar guztiok Landa izenegaz esagutzen dogu. Oso gune garrantzitsua zan antzinako Zorrotzan eskola, garbitokia eta iturria hantxen zegozala-ko. Lehenengo denboratan jaiak bertan ospatzen ziren. Ez da esan behar plaza hori garaiko auzoaren erdi erdien zegoela.

LEHEN



Landako eskola



Landako etxea

ORAIN



La Landan ikurrinagaz



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla bateak
eta bestelako pintxoak
Abaro estarta IO

AUPA ATHLETIC

EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK



ibarraetaluxury
OPTICA ★

BLACKGUARD64



alboka
taberna

Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

“ Euskalduna izateak ate ugari ireki zizkidan, gurekin afinitate handia baitute Katalunian ”



ELENA LUCIO

Bizitokia: Igualada (Bartzelona)

Noiztik: 2005etik

Adina: 36 urte

Lanbidea: Administrazioaile

Bikotekidearekin batera bizitza berri bat hasiera Bartzelonara joan zen orain dela 11urte. Bertan bere familia propioa sortu eta bizitza arrunta baina zoriontsua izatea lortu du, hizkuntz berri bat ikasteko aukera alde batera utzi gabe. Oraingoz bueltatzeko asmorik gabe, hemengo gauza eta pertsona ugari berarekin izatea gustatuko litzaioke.

Ainara García

Nola eta zergatik joan zinen Bartzelonara?

Maitasunagatik, kataluniarra den nire bikotekidearekin bizitza berri bat hasteko. Bioi iparraldean gustatzen zitzaigun baina pisuen erosketak dela eta (Katalunian askoz hobeto zegoen kontua) bertan probatzea erabaki genuen.

Zure bizitza, hemen zenuenarekin alderatuta, ezberdina da?

Egia ezan ez gehiegi. Langile auzo batean bizi naiz. Aldaketa handia sumatu nuen, adibidez, hemengo jendea lanetik etxera zuzenean joaten delako. Astelehenetik ostiralera lagunekin zer edo zer hartzeko eta hizketan egoteko ohiturarik ez daukate, eta lagunekin taberna batean badaude, ez dira mugitzen. Ez dago poteatzeko ohiturarik.

Bertako ohiturei moldatzea kostatu zitzaizun?

Horrekin ez dut inolako arazorik izan.

Nolakoa izan da herri kataluniar batean integratzea?

Hasieratik kataluniarren laguntasuna sentitu nuen. Euskalduna izateak ate ugari ireki zizkidan, gurekin afinitate handia baitute.

Zorrotzarekin alderatuta, zer da Igualadatik gehien gustatzen zaizuna?

Aisialdi tarteak igarotzeko edozein motatako eskaintza ugari egotea.

Eta zer da gehien harritu zintuena?

Haurrentzako jolastoki gehienak hutsik egotea. Umeak ikastetxetik, zuzenean etxera edo eskolaz kanpoko klaseetara doaz.

Zeren falta duzu?

Familia, lagunak eta pintxotan joatea.

Bertan lan on bat lortzea posiblea da?

Nik ez nuen arazorik izan. Hizkuntza oztopo bat izango zela uste nuen, baina lan berriarekin hastean, kataluniera ez jakitea arazorik ez zela esan zidatzen. Hala ere, heldu bezain laster, kataluniar kurtso batean izena eman nuen eta gaur egun bi hizkuntzetan inolako arazorik gabe moldatzen naiz.

Janariarekin arazoren bat?

Ez, oso antzekoa baita. Hala ere, Euskal Herriko haragi eta arrainkiaren kalitatea ez duzu erraz lortzen hemen. Eta esan beharra daukat, olio eta tomatearekin igurtzi gabeko ogitartekorik ez eman, e! Kar, kar. Butifarra, calçots, cava edo Penedeseako ardoarekin guztiz ohituta nago.

Inguruetatik bidaiatzeko aukerarik izan duzu?

Turismo ugari egiten saiatzen gara, kostaldean herri ederrak daude. Costa Bravan galteza gustatzen zaigu.

Zorrotzara maiz etortzen zara?

Hiru edo lau hilabeteen behin etortzen saiatzen gara, nire amak eta nire semeak ahalik eta kontaktu gehien izateko batez ere. Ez dugu sarriago egiten garestia delako.

Zer edo zeren falta izan duzu?

Sinestezina bairudi ere, Bartzelonara heltzean euriaren beharra nuen, gainera bertara heldu nintzen urtean idorte ikaragarria zegoen. Bes-

talde, egunero ohetik altxatu eta euritakoa hartzeako beharra ez izatearekin pozez zorutzen nago. Umorearekin ere zerikusi ikaragarria dauka honek.

Nolakoa da zure bizitza Igaladan?

Bizimodu guztiz arrunta daramat: lan egin, nire semeari eta bikoteari denbora eman, lagunekin une onak igaro...

Eta Katalunian ama izatea?

Parkeetan gurasoak umeekin egotearen falta dut. Ni egunero noa eta askotan nire semea eta biok baino ez gaude. Hala ere, lan konziliaziara heltzeko ordutegi egokia lortzeko arazoak izan nituen enpresan eta batzar ugariren ondoren lanaldi murrizketa eskatu behar izan nuen. Arazo hau, zoritxarrez, ez da soilik Katalunian ematen.

Zein litzateke zure ustez kataluniarren ezagarririk adierazgarriena?

Bada, egia esan, zekenak izatearen kontua, adibidez, ez da egia. Behintzat nik ezagutzen ditudanak, noski. Nirekin beti jende irekia eta eskuzabala izan da, baina aurretik eratuta da goen talde batean sartzea zaila da.

Bertan geratzea, erabaki erraza edo denborekin hartutakoa izan zen?

Ez zen batere erraza izan, ez. Familia hain urrun uztea oso gogorra da, eta hausnarke-ta sakona egitera behartzen zaitu. Gaur egun oso pozik bizi naiz hemen daukadanarekin, baina posiblea balitz Bilboko gauza eta pertsona ugari ekarriko nituzke. Ezin hobea izango litzateke!



Taberna
MITOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

Regalos
Omega
oparidenda
Fraí Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66
www.omegadetalles.com

Café
LAS NAVAS
Pintxo goxoak egunero
Zorrotza Kastrexana errepidea 4

Bar La BOMBA
Zorrotza Kastrexana errepidea 33

TXINBOTARRAK KONPARTSA

Hamar urte martxan jai-eredu herrikoia



Hamar urteko ibilbidean, Txinbotarrakek auzotarron harremanak sendotu eta jai-eredu herrikoa lantzen aritu da, bai Zorrotzan bai Bilbon.



Testua: Igor Gutiérrez
Argazkiak: Txinbotarrak

“Arrasti on Bilbo, hau da gure historia: auzo borrokak jarri zuen arrautza, ekin ta ekin lumaz josi ein gara eta jada txori onak ikasi dugu hegan”. Hitz hauekin hasi zuten Txinbotarrakeko konpartsakideek bere saioa, aurtengo Aratusteetako koplato-lehiaketan. Horrela azpimarratu nahi zuten konpartsa Zorrotzako herri mugimenduaren baitatik jai zela. Gaztetxearen okupazioa (2004), Azoka Parkearen defentsa hura kaltetuko zuen parking-aren proiektuaren aurrean (2005), edota Jai Batzordearen alde egindako diru-bilketa masiboa (2005) jo daitezke taldearen aurrekaritzat. Izan ere, borroka horietan guztietan auzoko gazteak erabakigarriak izan ziren eta elkarlan horrek auzo-konpartsa bat sortzeko ideia gorpuztea erraztu zuen. Egun, gazte horiek nagusi egin dira eta jada familia handi

baten itxura hartua du konpartsak, adin guztietako txinboak ikus daitezkeelarik.

Auzo borrokak Bilboko erakusleihora eta Zorrotzako bizitza kulturalari bultzada

Hasiera batetik, herri mugimenduaren adierazpide izan da Txinbotarrak. Horrela, azken hamarkadako auzo borrokak Bilboko erakusleihora eraman ditu, hala nola, parkearen defentsa, FEVEren lurperatzea, kutsadura, auzoentzako kultur baliabideen gabeziak edota frontoiaren estaltzea. Baina ezeren gainetik, auzo nortasuna indartzea eta Bilbo Kadagua ibaiaren ertzeraino iristen dela azaleratzea ditu lortutako aipagarrienak.

Horrez gain, ekarpen esanguratsuak egin dizkio Zorrotzako bizitza kulturalari. Funtsezko azpiegitura elementuak erostez gain,



urteko jai egitaraua elikatzen laguntzen dute eta, bestetik, musika-tailerrak martxan jarri dituzte: txinbatukada, bateria, txalaparta, gitarra, trikitixa... Apurka-apurka, auzoko kultur eragile nabarmengarri bilakatzen ari da konpartsa, Aste Nagusiko etekinak auzoan bertan inbertituz.

Bukatzeko, auzotarron arteko harremanak sendotzen lagundu du konpartsak, kuadri-



lla desberdinetako lagunek elkar ezagutze-ko aukera emanez. Hasierako olatutik hamar urte igaro direnean, jende berria jasotzera irekirik jarraitzen dute, familia ugaria eta anitza izatea baitute helburu.

Eta aurreko guztia jai-eredu herrikoia ardatz izanik; hau da, elkarlanean, partaidetzan, partaidetasunean eta aniztasunean eraikitako jaietan oinarrituz. Urte askotarako!



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

IVÁN SANCHÁ ETA AKETZA UNZUETA

Taekwondoko Espainiako Txapelduna eta Txapeldunordea

“Ez nuen sinisten txapelduna nintzela”
“Gozatzera joan nintzen. Ez nuen dominarik espero”



Zorrotzako institutuan DBHko 3. kurtsoa bukatu berri du Ivanek eta 14 urte ditu. Aketza berriz, 12 urteko DBHko 1. mailako ikaslea da Urretxindorra ikastolan. Biak taekwondoko Zorrotzako Ratxei Taldeko kirolariak dira, eta Castellón eta Valentzian izandako Espainiako txapelketetan parte hartu ondoren, domina bana ekarri dute etxera. Ivanek urrezkoa Teknikako Kadete infantil kategorian, eta Aketzak zilarrezkoa 49 kg-tik beherako Kadete kategorian.

Testua eta argazkiak: Aitor Marín

Londresen 2012an izandako olinpiar jo-koetan Estatutik joandako hiru ordezkariak domina bana eskuratu zutenean, gorakada txiki bat bizi izan zuen taekwondoak. Hala ere, gaur egun gurean oso jende gutxi ezagutzen duen kirola da. Gutxiengo diren beste kirolekin bezala, taekwondoan aurrera egitea oso zaila dela gogorazi digu Iván eta Aketzaren entrenatzailea den Isabel Tejadok: “ez duzu sponsorrik, ez babeslerik...” 130 kirolari inguruk osatzen duten Raxei klubaren kideak dira biak. Bilbao Kirolak erakundeari esker, entrenatzeko lokalak eskura ditu eta “erraztasunak baino ez ditugu topatzen oro har polikirolegian”, azaldu dute Isabel eta Ramón Holgado entrenatzaileek. Foru Aldunditik ere diru-laguntzak jasotzen badituzte ere, honelako kirolek laguntza urriak dituztela adierazten dute. Penagarria da, baina honetan ere diruak zeregina dauka. Izan ere, soilik Euskadiko txapeldunei ordaintzen die bidaia Federazioak. Iván Euskadiko Txapelduna zen, baina Aketza Euskadiko txapeldunordea izan zen 50 kilotik gorako kategorian. “Klubaren eta batez ere bere gurasoen ahalegin ekonomikoa ez balitz, domina hau ez litzateke posible izango” azaldu du Isabelek.

Elkarriketa egunean, entrenamenduan kontzentratuta aurkitu ditugu Aketza eta Iván. Kamera eta grabagailuaren aurrean, apur bat lotsatuta eta urduri, ZMen galderei erantzuten hasi dira:


Noiz hasi zineten taekwondo egiten eta zergatik taekwondo eta ez beste kirolik?

Iván: Hamar urterekin hasi nintzen. Galizian erakustaldi bat ikusi nuen eta asko gustatu zitzaidanez, auzoko taldean izena ematea erabaki nuen. Erlaxatzen laguntzen didan kirola da.

Aketza: Sei urterekin auzoko klubean izena eman nuen. Nire aitak judo egin zuen eta berak nik ere mota horretako kirolen bat egin nezala nahi zuen. Nik ere gustukoa nuen, beraz aurrera!

Profesionalki taekwondon aritzea gustatu-ko litzazueke, ezta?

I eta A: Bai, nola ez! (biak batera)



Eta taekwondo ez balitz, pentsatuta daukatzue zertan gustatuko litzazuekeen heldutan aritzea?

I: Ertzaina, adibidez.

A: Karate edo horrelako zerbaitekin. Kirolari lotuta dagoen zerbaitekin. Besterik ez dut pentsatu oraindik.

Taekwondori buruz ezer ez dakigunoi azaltzeko: Zer da taekwondo? Borrokaldiaz aparte disziplina gehiagorik al dago?

I: Borrokatzeko besoak eta hankak erabiltzen diren kirol bat da. Gehien bat hankak erabiltzen dira eta borroka teknikak egitean datza. Borroka beste kirol gehienak baino disziplinuagoa da. Borrokaldiaz aparte, teknika ere badago. Teknika, pumseak (poomsae) egitean datza. Pumseak teknika batzuk segidan eginez lortzen dira, erakustaldi bat balitz moduan. Bost epaile daude eta haiek neurtzen dute teknikak ondo edo txarto egiten dituzun...

A: Bietatik, niri borrokaldia da gehien gustatzen zaidana.



Zenbat ordu ematen dituzue entrenatzen?

A: Astelehenero, asteazkenero eta ostiralero ordu bateko entrenamendu saioak egiten ditugu.

I: Batzuetan Euskadiko Selektzioarekin larunbatetan ere entrenamendu bereziak izaten ditugu, Euskadiko lehiaketan ondoren, Estatu mailako txapelketak prestatzeko.

Horrelako mailari eusteak, alde gogorraren bat ere izango du, ezta?

I: Asko entrenatu behar da urte osoan zehar txapelketetara heltzeko eta irabazteko.

A: Neke handiagoa dago... Adibidez kategoria bakoitzean neurri zehatzak daude pisuan eta ezin dituzu gainditu, bestela lehiatzea galarazten dizute.

Espainiako txapelketetan parte hartu aurretik, beste lehiaketaren batean parte hartu izan duzue?

A: Euskadiko Txapelketan soilik. Espainiako Txapelketan nengoen lehenengo aldia izan zen.

I: Aurten Espainiako Txapelketara laugarrenez joan naiz. laz bosgarren sailkatu nintzen.

Aketza, zure lehenengo txapelketa... Heldu, eta zilarrezko domina. Zelan bizi zenuen finala eta domina irabazi zenuen une hura?

A: Oso pozik. Ahalik eta ondoen egiteko asmoarekin joan nintzen. Ondo pasatzera, gozatzerara... Ez nuen dominarik espero. Finalean, ez nuke esaten jakingo zer sentitu nuen biziago, urduritasuna edo poza... Dena ia jarraian da, eta ez nuen asimilatzeke denbora askorik izan. Saiatu nintzen ahalik eta ondoen egiten eta borrokaldiaz gozatzeko. Edo behintzat hori aholkatu zidatela gogoratzen dut, kar kar.

Urrea hain gertu izanda, ez lortzearen arantzaz hori geratzen al zaizu?

A: Ez, pozaren pozez etxera. Lehen esan dudana bezala, ez nuen dominarik espero, beraz, imajinatu!

Eta zuk Iván? Txapelduna izango zinela imajinatzen zenuen? Nola izan zen urrezko domina jasotzeko unea?

A: Lehen esan bezala, iaz bosgarrena izan nintzen. Aurten asko entrenatu dut eta irakasleek asko hobetu nuela esaten zidaten,



LABURREAN

Miresten duzuen kirolari bat?

A: Taekwondon Joel González Bonilla, eta oro har Aritz Aduriz futbolaria.

I: Laura Kim

Taekwondotik aparte, gogoko duzuen beste kirolen bat?

A: Futbola eta saskibaloia gogoko ditut, eta eskupilota klaseak ere hartzen ditut.

I: Gutxi. Taekwondo soilik.

Lehiatzerakoan, maniarik al duzue?

A: Bada atera baino lehen ez daukat superstiziorik, baina borrokaldian, batzuetan boteak egiten ditut.

I: Atera aurretik aitarena egiten dut beti.



beraz, hobetzea espero nuen, baina ez nuen sinistu txapelkun atera nintzenez... Poztasun handia sentitu nuen...

(Biek ukatzen saiatzen diren arren, Isabel entrenatzaileak biek negar egin zutela baieztatu digu)

Jende asko egongo zen txapelketak ikusten, gurasoak, kideak... Horrek urduriago jarri zintuzten ziur aski.

A: Bai, gurasoak zeuden, beste txapelketetan baino jende gehiago... Nabaritu nuen, baina saiatu nintzen horretaz ahazten eta nire one-na ematen.

I: Finalean batez ere, oso urduri egon nintzen. Arnasa asko hartu behar izan nuen pixka bat lasaitzeko, kar, kar!

Ametsetan jar gaitezen. Noraino heltzea gustatuko litzaizueke taekwondoan?

A: Olinpiadetaraino. Hori taekwondoan goraino heltzea da. Izugarria izango litzateke!

I: Munduko txapelketa... Izugarria litzateke.

Zer esango zeniokeke taekwondoan hasi nahi duen ume bati edo umea apuntatzeko-tan dauden gurasoei?

I: Apuntatzeko zalantzarik gabe. Oso kirol polita da taekwondo eta oso ondo pasatzen da praktikatzen. Eta konstante izatea gomendatuko nioke hasi nahi duen edonori.

A: Oso kirol ederra dela eta asko gozatzen dela. Eta asko entrenatzeko ere. Lana eta entrenamenduarekin emaitzak heltzen dira. Eta merezi du!



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75

Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75

Telefonoa: 94 442 17 12



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta afixariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

Urdaiazpiko errea



Osagaiak: Txerri beso freskoa, ardo zuri litro erdia, ur litro erdia.

Besoa ur gazitan bi egunez sartu behar da, nahastea barneratzeko. Bi egun horiek pasata, erretilu batean jarri eta labean, 200° -tan 3 ordu eta erdiz izango dugu. Labelean dagoen bitartean, ordu erdiro, ur apur batez ureztatu behar da. Ondoren, besoa sastatuko dugu. Odola ateratzen ez bada, urdaiazpiko errea egongo da. Behin hotzik, xerratan moztuko dugu. Bere saltsa bota, berotu eta listo. On egin!

Zailtasun maila	Ertaina
------------------------	---------

Prezioa: 2 € (pintxo) 5 € (errazioa)

LA VIÑA DE ORO



1970etik irekita. Hor aurkituko dituzu lñaki eta Ana zure zain.

Egunero musika eta giro ezinhobea.

Arratsaldero 18:30etik 22:30era:


Kaña errubia: 1 €

Kalimotxo: 1,25 €-tik

Kubatak: 3 €

Zorrozgoiti, 1.

Telefonoa: 94 499 42 47





Doinua: Elgeta.

Hitzak josi hitzak nahasi
ta esanahia trakestu
gezurra esan ta horrekin
gure egia babestu
pentsatzeko esateko
letrak elkartzeko prestu
gramatikaren ziloak
batzu(e)tan zentzurik ez du
hitzak asko direnean
egokia ez agertu
zenbat esaten ditugun
behar ez denean alitu
zer ote dira gure hitzak?
ez badira eman ta hartu
beltza zuritu ahal dute
ta zuria dena beltzu

Doinua: ETaren su-etenetik.

Herri bat eraikitzeko
zer ote da inportanteena?
Euskal Herriaren alde
maiz gazteleraz da dena
bitartean euskara da
oztopo edo kondena
abertzaletasunak gaur
badu hor bere herrena
serio hartuko al dugu
euskarak duen problema
hausnartu behar genuke
botako dudana hurrena
zer Euskal Herri mota da
erderaz pentsatzen dena

Asier Urkiza




Literaturan, idazle batzuek artistatzat definitzen dute bere burua, eta beste batzuek beharginak edo artisa-
suaak lez. Harkaitz Canoren kasuan ez dakigu non
hasien den profesionala eta non artista. Poesia, nobela,
komikia, kolaborazioak, ... idazketaren peoia ematen du
Canok, baina bere ukitu pertsonala hain berezia da non
testuek artelanak diruditen. Dena den, artista edo langi-
le izanda, bere azken liburuarekin oporrak hartu dituela
dirudi, hitzekin jolasteko.

Narrazio motzen bilduma batek osatzen du liburu-
a, aisialdi eta oporretan gertatzen ohi diren egoere-
tan oinarrituta, non batzuetan deskantsuak ekarri behar digun lasai-
tasuna, besterik gabe, agonia-egoera bihurtzen den. Surrealismo
ukituak, misterioa eta tentsioa dira narrazio labur hauen protagonis-
tak, eta ikus dezakegu segun eta zer egoera, zer pertsonaiak edo
zer kontatu nahi den estiloa eta hizkuntz erregistroa aldatuz doa-
zela. "Beti oporretan" egoteko gure aholkua haxe da, lagun: Iraku-
rri, eta joan zaitez beldur barik istorioek eramango zaituzten lekura.



Kimera. Revolta Permanent (Gaua. 2016)



John Milton idazleak Lucifer pertsonaia irudikatu zuen
"Paradisu galdua" izeneko liburuan. Eta obra honen
pasarte batekin hasien da Revolta Permanent talde-
aren azkenengo lana. Ondoren 12 abesti aurkituko ditu-
gu non hip-hop erritmoak soinu elektroniko eta kitarra
riff pisutsuekin nahasten diren, melodia ere presente
dagoelarik. Taldea lau pertsonak osatzen dute: Iker Vi-
lla eta Iker Aginaga (ahotsak), Mikel Becerra (kitarrak
eta koruak) eta Aitor Abio (instrumentalak, teklatuak eta koruak). Azken
honen ardurapean grabatu dute diska Mungiako Gaua estudioetan. Di-
seinua ere taldekide batek egin du (Iker Villa).

Duela gutxi Gorlizen bere zuzeneko basatiaz gozatu genuen, izan ere,
taldearen "lurralde naturala" eszenatokia da, txikia eta iluna bada, are
hobeto. "Desagertu", "Ehiztaria" eta "Belaunikatu" adibide bezala jarrita
zuzenean puntuak irabazten dituzte, publikoarekin lortzen duten feed-
back-a oso handia baita. Aukerarik baduzue hurbildu zaitezte kontzertu
batera, ez zaizue damutuko eta. Revolta etxean da!



Tout le monde...

Maiatzaren 10ean hasita, 19 egun eman dituzte Fresneseko preso politikoek gose greba mugagabea, Itziar Moreno San Inazioako ki-dearen isolamenduagatik protestatzeko.

Askok ezagutuko duzue Saul, urte asko eman ditu auzoko hainbat mugimendutan. Orain dela 3 urte eta erdi Frantzia espetxeratu zuten. Kartzelan egotea gutxi izango balitz, ez dut pentsatu ere egin nahi bertoko baldintzen menpe egotea zer den, bisiten txokoa ezagutzen dut eta nazkagarria dela esango bainuke. Lehenengo bisita egin nuenean arnas gabe geratu nintzen zelako zulo nardagarrian sartuko gintuzten ikustean, baina esan beharra dut ahaztu egiten zaizula non zauden ere bera ikustean.

Maiatzaren 9an mezu bat jaso genuen: Saul eta beste 4 kide gose greba mugagabea hasiko ziren Itziar isolamendutik atera arte. Bat-batean alarma guztiak piztu ziren, jateari uko egitea ez da tontakeria hutsa eta zure osasuna kaltetu dezakezu, baina Saulek argi zuen: denok eman behar dugu zerbait, gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten.

Ordutik mugitzen hasi ginen, bere egoera salatu beharra zegoela argi genuen eta, baina noiz arte? Zenbat iraungo zuen Saulek egoera horretan? Hainbat ekimen burutzen hasi ginen: batetik, espetxeko zuzendariari milaka esku-titz bidali genizkion Itziarren isolamenduarekin bukatzeko eskatuz, eta bestetik, Frantziar Kontsulatura jo genuen, beraiek ere presioa sar-

zezaten. Baina egunak pasatzen ari ziren eta Saulek eta kideek jan gabe jarraitzen zuten, beste kideen senideekin hitz egin genuen eta Fresneseko espetxera martxa bat egitea adostu genuen.

Astebeteko epean autobus bat bete genuen, elkartasunez beteriko autobusa, 15 egun zera-maten jan gabe eta egoera larria zela ikusten baikenuen. Maiatzaren 27an, Pariserako bidea hartu genuen, gau osoa eman genuen autobu-sean eta azkenik goizeko 9etan heldu ginen Fresnesera, nahiz eta bidean oztopoak jarri, Biri-atun gelditu baikintuzten.

Heldu bezain pronto, gure zain zegoen Parise-ko elkartasun taldea, Lucio Urtubia buru. Zaratoka hasi ginen (megafonia eta suziariak era-man genituen beraiek entzun gintzaten) 4 ordu eman genituen kartzela inguruan, barrutik ere zaratak entzuten ziren, jendea oihuka zebilen kartzela barruan... Eta azkenik, Saulekin bisita egin genuen gutariko bik: 19 egun zeraman ezer jateke eta zurbil zegoen, baina Euskal Herriko dozenaka pertsona hara joateak, inda-rak eman zizkion. 30 minutu horiek bukatzean, agurtu genuen, noiz arte jarraituko zuten gose greban jakin gabe.

Kartzelatik atera bezain pronto autobusera abiatu ginen eta Euskal Herrirako bidea har-tu genuen, gure sentsazioa gazi-goxoa zen: batetik pozik geunden egindako ekintzarekin, presoek gure oihuak entzun zituzten, baina bestetik, hor uzten genituen Saul eta kideak, gose greban jarraitzen zutenak. 12 orduko bi-dea geneukan aurretik, martxan oihukatutako leloak entzuten ziren oraindik autobus barruan (solidarité avec le prisoners, Tout le monde...) eta gaueko 22ak aldera berria eman ziguten: gose greba bukatutzat ematen zuten, Itziar Mo-reno kartzelaz aldatu eta isolamendutik aterako baitzen. Elkartasunez eta mobilizazioez, edozer lortzen den adibidea da. Azkenik, amesgaiztoa bukatutzat eman genuen, baina amesgaiz-to asko daude oraindik eta gure elkartasuna ez da geldituko guztiekin bukatu arte. "Tout le monde..." beti izango du zentzu berezia Fres-neseko martxan parte hartu genuenontzat.

Nerea Zuloaga



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98



MAPFRE

Estibaliz Ibañez Canal
Delegatua

Astillero, 8
48013 Bilbo

Tel. **94 441 91 87**
iestiva@mapfre.com
ampascu@mapfre.com

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!



EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Aurreko zenbakian, neska eta mutikoei hitz egiteko moduan asimetria nola ematen den ikusi genuen. Honetan, gizon edo emakumeentzako hitz baliokideak erabiltzean, esanahian ematen den desberdintasuna (beti ere emakumeen gutxiespenerako) ikusiko dugu.

Adibidez, "agure" eta "atso" hitzak erabiltzean, bigarrena emakume zaharrak izendatzeko erabiltzen da, bigarrenak zentzu gutxiesgarriagoa dauka, lehenengoak pertsonaren adinari buruzko zentzua izanda.

Norbaitek potroak edo obarioak dauzkala esatean, esanahia ez da berdina, nahiz eta azken hau gero eta gehiago erabiltzen hasi den nesken artean lehenengoaren esanahira egokitzeke.

Gizentasuna badago beti ere ausardiarekin loturik, emetasunak emakumearen ezaugarri naturaletan oinarrituriko konnotazioa daukan bitartean.

Gizalege eta emalege.

Berdin gertatzen da "bulartsu" hitzarekin: gizonetan ausarta izatea esan nahi duen beza-la, emakumezkoetan bular handiak dituen izendatzeko balio du.

SALAKETA ARGAZKIA



Ulertezina da auzoko parkerik handien eta erabilienean, promotora pribatu batek obrako kaseta batzuk jarri ahal izatea. Nork eman du baimena? Zenbat denbora iraungo du? Ez al zegoen beste lekurik? Bilboko erdialdean berdin gertatuko litzateke?

...

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ITZULERA GOGOAN,
TAUPADEN ARRAZOIA



ASKABIDE
kultur elkarte
zorrotza

Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

cafe txinbo

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak

Kanapeak



Abaro estarta, 10
Tel. 94 608 85 74

Zorionak Gure Lurra!

30 urte bete ditu Gure Lurra elkarteak. Hiru hamarkada luze hauetan elkartean izandako kideak batu eta auzoarekin batera ospatu genuen ekainaren 4an. Hainbat ekitaldi egon ziren egunean zehar, besteak beste, bazkari herrikoia, dantzaldia eta poteo musikatua.



Jada 30 urte pasa dira. 3 hamarkada non, pixkanaka, Gure Lurra auzoaren parte bihurtu den. Txiki eta gazte gehienek gu-rean pasa dute egun, aste, urte, edota bi-zitza erdia.

Pasa den ekainaren 4an pertsona horien guztien eguna zen, elkartzeko, gogorarazte-ko eta egiten dugun lan guztiaz harro sen-titzeko.

Goizeko plangintza txikientzat bereziki an-tolatua zegoen, tailerrak eta Txiri Txorirekin dantza egiteko aukera izan zituzten. Gai-nera, zumbathon arrakastatsu batekin har-ritu genituen lagun guztiak eta aspaldiko partez, iraganeko iratxoak Zorrotzan berriz ikusteko aukera izan genuen.

Bazkalorduan 150 lagun baino gehiago el-kartu ginen mahaian inguruan, goxo-goxo

jan eta arratsalderako indarrak berreskura-tzeko. Ondoren, ekitaldi nagusia eta "Hava-na 537" talde kubatarrekin dantza egiteko unea heldu zen. Gauean, indarrekin jarrai-tzen zutenak auzoan zehar ibili ziren poteo musikalarekin.

Parte hartu zuten pertsona guztiak: kan-poan bizi diren begirale ohiak, Gure Lurra-ren hasiera pausoak eman zituzten gazteak (gaur ez hain gazteak), lagunak, langileak, begirale aktiboak, haien familiak, bazki-deak, auzokideak, beste elkarteetako ki-deak... Denok elkartu ginen egun jaitsu eta hunkigarria ospatzeko.

Azoka Parkean landatutako zuhaitza, Gure ibilbidearen sustraiek lurrari tinko heldu zio-ten. Gure bidea, Komunitate Garapenaren erronka indar guztiz landu eta babestuko dugun seinale bihurtzeko.



Aurten 30 urte bete ditugu, baina gure go-
goak eta besteengandik jasotzen dugun
maitasunak eta esker onak beti bizirik ja-
rraitzeko sua piztu digute.

Mila esker gurekin ospatzera gerturatu zi-
naten guztioi!

Gure lana zuentzat da!
Gora Gure Lurra!



***Zeu zara
izarra***

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es



Garikoitz

Betidanik hartu dut parte.
Onena, auzoan sortzen
den giroa eta jendea
elkartzeko egiten diren
lehiaketak.



Jose

Bai, batzuetan
hartu dugu parte.
Gustukoan daukadana,
paella edo beste motatako
bazkariak egiteko
txapelketak dira.

Zorrotza Eguna.

Parte hartzen duzu?
Zer da gehien
gustatzen zaizuna?

Iratze Pérez



Iris

Bai, Gure Lurrakoek
urtero-urtero zerbait
prestatzen dugu!
Kudrilla pilo bat elkartzen
gara egun osoa pasatzeko
eta oso ondo pasatzen
dugula nabarmenduko
nuke.



Arantzazu

Ezagutzen dudanetik
urtero etorri naiz.
Auzoko aldarrikapenak
bistaratzeko egun aparta
da eta herriko jendearen
partehartzea da gehien
gustatzen zaidana.



Asier

Bai, ia urtero hartu dut
parte. Gustukoena?
Sortzen den giroa eta
auzoko jendea ikusteko
aukera ematen duela.

Dantzari

Camino Zorrozegeti 1,

94 612 93 85



drinks



caoko



music



more



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46

Bilbon
euskaraz



▶ www.bilbaeuskaraz.eus



Bilbao

DENA BERDIN

Betiko segurtasuna
eta hurbiltasuna

DENA BERRI

Inoiz baino errazago
eta azkarrago

LABORAL KUTXA ZUREKIN ZURE MUGIKORREAN

Eguneratu zure App-a



Download on the
App Store

GET IT ON
Google play


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

IKASI ETA BIZI IZANDAKOA
EZ DUZU AHAZTUKO

2016-2017

ikasturtea

curso



aek
Garena Ikasteko

IKASTAROAK Cursos

- Hiruhileko ikastaro trinkoak
Cursos intensivos trimestrales
- Astean 5, 4, 3, 2, ala egun 1
5, 4, 3, 2 o 1 día a la semana
- Ostiralean ala larunbatean
Viernes o sábado
- Mintza taldeak
- 4. maila (C2)
- Autoikaskuntza
Autoaprendizaje

DIRU-LAGUNTZAK Subvenciones

- Eusko Jaurilaritza / Gobierno Vasco
- Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia
- Bilboko Udala / Ayuntamiento de Bilbao

Eskatu informazioa gure euskaltegian / Pide información en nuestro euskaltegi

ZORROTZA AEK

Zalbidea 7 • 944 414 920 • zorrotza@aec.eus

www.aek.eus/blogak/bilbo

aek

www.aek.eus

INDAUTXU AEK

Urtejo 68, 1
944413474
indautxu@aec.eus

LARRAKO AEK

Isan Inazioi
Larraño Torre 24
600585522
larrako@aec.eus

LIZARDI AEK

Aldiz zaharrai
Perra kalea 1, 1
944168200
lizardi@aec.eus

MATXINTXU AEK

Idusua
Ramon y Cajal 8
944752233
matxintxu@aec.eus

SANTUTXU AEK

Astibia 21
944117956
santutxu@aec.eus

URTATS AEK

Irrola
Kinkila 22
944211304
urtats@aec.eus